



Lehendakaritzaren erreleboa, taldean berriro

Ainhua Urienek, Onintza Enbeitak, Sustrai Colinak eta Xabi Igoak osatuko dute Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakaritza talde berria; Batzar Orokorrean bozkatu eta onetsi dute bazkideek.

Pasa den martxoaren 10ean aurkeztu genuen lehendakaritza talde berria Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Ohiko Batzar Orokorrean. Aguraingo udaletxeko pleno aretoan egin genuen urteroko bilera, eta areto bete bazkide izan ginen. Bertan, urteko kontuak eta egitasmoa onartzeaz gain, lehendakaritza taldearen erreleboa ere bozkatu genuen. Aldaketaren erabakia aho batez hartu zuten bazkideek.

Aurpegi berriak dakartza lehendakaritza taldeak, baina ez ezezagunak. Ainhua Urien, Sustrai Colina eta Onintza Enbeitak sartuko dira taldean, eta Xabi Igoak lehendakaritza taldean jarraituko du, aurrekoan ere kide izan baita.

Egitasmoak, onartuta

Titularra lehendakaritza taldeak bereganatu du, baina ez da elkarteak batzarrean aurkeztu duen berritasun bakarra. Hain zuzen ere, elkarteko koordinaziotik adierazi dute erabakigune nagusietan partaideen erreleboa eta funtzionamendua berritzeko lanean ari direla.

Horrez gain, elkarteak bere lan ildo nagusien irakurketa ere egin du: 2023ko kontuak eta 2024ko egitasmoa landu ditu elkarteko sail eta herrialde bakoitzak. Horrela, transmisioaren egungo irakurketa egin dugu, eta bertso-eskoletan eta materialean jarri dugu begia. Transmisio bide horretan, hedapen lanek berebiziko garrantzia hartu dute, eta Hitzetik Hortzerak inoizko audientzia daturik altuenak izan ditu.

Ikerkuntza da beste oinarri sendoetako bat: jakinarazi dugu bertsolariei buruzko ikerketa jarriko dugula martxan, gaur egungo bertsolaria nolako den jakiteko. Bertsolarien ikerketaz harago, plazarena ere egin dugu, bertsolarien lan-baldintzak hobetzea helburu. Eta dokumentazio aldetik, bertso saioen agenda eta grabazioen zirkuitua berrantolatuta dira.

Berrikuntza guzti horiek 2018an zehaztutako gogoeta estrategikoaren parte dira. Egun prozesu horren erdian gaude, 12 urterako zehaztu baikenuen. Orduan zehaztutako helburuekin jarraitzeko asmoa dugu aurten ere.



Aho batez onartu dira 2023ko kontuak eta 2024ko egitasmoa. //XDZ



**ARO
ARRIZUBIETA BARREDO**

GASTEIZ, 2024-03-16

ARABAKO TXAPELDUNA 2024

Doinua: Nere gorputza dardarka daukat

Promesa haundiz ahoak betez ari dira bonbak lehertzen eskubideak murrizten eta jendea etxegabetzen. Nola nahi dute honen aurrean geldi geratu gaitezen? Nahiz ta betatzen ari zaizkigun berdin Bilbon zein Gasteizen sinisten dugun honetan irmo dihardugu GKSn politiko ta enpresen aurrean altxatuz ezen egungo gazte belaunaldien zeregina ez ote zen borrokatzea bihar gaur baino hobeto bizi daitezen.

16 taldek parte hartuko dute Bizkaiko Taldekakoan

Kanporaketa fasean zortzi saio bikoitz egingo dira; finalaurrekoak eta finala maiatzaren 25ean jokatu dira, Arrigorriagan.

Bizkaiko Taldekakoaren laugarren edizioa jokatu da aurten martxoaren 15etik maiatzaren 25era bitarte. Guztira, 16 talde ariko dira eta, horietan, 120tik gora parte-hartzaile. Bertsolariez gain, antolatzaile, gai-jartzaile eta epaile rola izango duten parte-hartzaileak ere izango dira, ekimenaren helburu nagusia bertsolaritzaren oinarrian eragitea delako, forma ludikoan betiere. Bi fasetan banatuko da: alde batetik, kanporaketak eta, beste alde batetik, finalaurrekoak eta finala.

Txapelketaren formatu hau 2017an antolatu zuen lehen aldiz Bizkaiko Bertsozale Elkartek, bertso-eskoletan eta Bizkaiko eskualdeetan eragiteko asmoz. Horixe da helburua aurtengo

edizioan ere; horregatik, taldeena da bertso saioak antolatzeko, gaiak prestatzeko eta epailetza lanak egiteko ardura.

Finala, maiatzaren 25ean

Kanporaketa fasean zortzi saio bikoitz egongo dira. Irabazleak zuzenean sailkatuko dira finalaurrekora, eta zozketaz aukeratutako bederatzigarren batekin jokatu dituzte hiru finalaurrekoak eta finala maiatzaren 25ean, Arrigorriagan. Bizkaiko Bertsozale Elkartek egun osoko egitaraua antolatu du egun horretarako; izan ere, egun berean jokatu da Taldekakoaz gain, eskolarteko finala ere.



Gernika-Lumon jokatu da taldekakoaren lehenengo kanporaketa. //Gontzal Mendibe

Bertsolamintzaren azken jaia, Villabonan

Bertsolamintzak, bertsolaritzaren hausnarketarako plazak, azken saioak izango ditu aste honetan. Villabonako saioarekin bukatuko da aurtengo edizioa: bertan, aurtengo hitzaldi guztiak izango dira, baita bazkaria eta bertso saioa ere.

Bertsolaritzako gaiak eta horiei kantatzeko begiradez aritu dira bi aste hauetan zenbait hizlari. Martxoaren 13an hasi eta igandean, martxoaren 23an, bukatuko da, Villabonako jardunaldiarekin. Saiootan ertz eta begirada anitzetatik aritu dira hizlariak, eta era askotariko gaiak jarri dituzte mahai gainean: besteak beste, generoa, gaiari buruz kantatzeko zilegitasuna, gai-jartzailetza eta bertso-eskolak.

Aurtengo edizioari Villabonako jardunaldiak emango dio amaiera. Goizean goizetik hasita, beste lau egunetan izandako hitzaldi eta hizlari gehienak batuko dira Subijana etxean. Hitzaldiak bukatuta, gogoetarako tarte ere izango da, eta horren ostean bazkaria Behar Zana elkartearen. Bazkalostea bertso saio batek girotuko du: Miren Artetxe eta Sustrai Colina ariko dira kantuan, eta Eli Pagola gai-emaile lanetan.



Emankorrak izan dira orain arteko saioak; irudian, Gasteizkoa. //XDZ

Eskolartekoak, martxan

Martxoan hasi eta ekainera bitarte herrialde guztietan egingo dira Eskolartekoak. Haur eta gazteek jendaurrean bat-batean kantatu ahal izateko aukera ematea du helburu ekimenak.

Neguairen bukaera aldera iristen dira urtero lehenengo eskolarteko saioak eta udaberriaren zehar egiten dira beste guztiak. Gaztetxoei jendaurrean bat-batean jarduteko aukera ematen diete saio hauek. Horrez gain, harremanak egiteko, hurbilekoak bertsozaleetako eta antolakuntza lanetan ardurak hartzen hasteko izaten da Eskolartekoa.

Ohi bezala, Eskolartekoa abiatu duen lehen herrialdea Gipuzkoa izan da. Martxoko ostiraletan izango dira saioak: lehenengo



Hasi dira Gipuzkoako Eskolartekoaren kanporaketak. //XDZ

hiruak jokatu dira Aizarnazabalen, Andoainen eta Legazpin, eta aste honetan jokatuko da azkena, Oiartzunen. Finala apirilaren 12an egingo dute Lasturren.

Nafarroan ere apirilean izango da eskolartekoa, hilaren 26an. Iazko moduan, Laban egingo dute, 18:00etatik aurrera.

Arabian Aramaion, Gasteizen eta Kanpezun izango dira kanporaketak, maiatzaren 3an, 10ean eta 16an, hurrenez hurren. Finala Aramaion izango da, maiatzaren 18an, Aramaioko kultur etxean, 19:00etatik aurrera.

Bizkaian maiatzaren 6an egingo da lehen kanporaketa, Getxon; maiatzaren 13an bigarrena, Durangon; eta maiatzaren 15ean hirugarrena, Igorren. Hiru kanporaketak 17:00etan hasiko dira. Finala, maiatzaren 25ean izango da Arrigorriagan, Taldekakoaren finalaren egun berean.

Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako eskolarteko finala ekainaren 1ean izango da Itsasuko Sanoki gelan.

Herrialde bakoitzetik sailkatutako gazteek Euskal Herriko finala jokatuko dute. Ekainaren 15ean izango da hori Lekunberrin, 17:00etan hasita.

Bertso udalekuetan izena emateko bigarren epea, zabalik

Bertso-eskoletako kideek edota guraso bat Bertsozale Elkarteko bazkide dutenek izan dute orain arte aukera; orain, publiko zabalak izango du.

Martxoaren 20an zabalduko da Bertso Udalekuetan izena emateko bigarren epea, 10:00etatik aurrera. Lehenengo epean Larraulgo txanda bete egin da, beraz, Bidarra, Zuhatza eta Uitziko txandetan izena emateko aukera egongo da orain. Izena emateko galdetegia www.bertsozale.eus atarian bete behar da.

Orain arte izena emateko lehenetara izan dute bertso-eskoletako kideek edota guraso bat Bertsozale Elkarteko bazkide dutenek. Txandetan gelditzen diren azken lekuak eskainiko zaizkio orain publiko zabalari. Izena eman ahala osatuko dira txandak, beraz, etortzeko gogoz bazaude, bizkor ibili!

Egonaldi hauetan dago izena emateko aukera:

- Zuhatza (Araba). Adina: 9-11 urte. Datak: uztailak 24-28.
- Uitz (Nafarroa). Adina: 14-15 urte. Datak: uztailak 25-31.
- Bidarra (Baxenabarre). Adina: 16-18 urte. Datak: uztailak 15-24.

Aldiz, txanda jadanik erabat bete da Larraulen (12-13 urtekoekin) eta, beraz, ez dago bertan izena emateko aukerarik.

Informazio gehiago: www.bertsozale.eus atarian.



Hiru txandatan izena emateko aukera dago oraindik. //XDZ



Puntu jarrita

XABIER BILBAO GOROSTIDI

Gogoan dut lehenengoz Xalbadorren berri izan nuen eguna. Oraindik gogoratzen dut Lazkao txiki ispiluaren aurrean "azal tximurtzen". Eta oraindino akordatzen naiz Egañak zure irrifarra dela inporta zaidan bakarra esan zuenean. Oroitzapen guzti horiek nire barruan daude eta gogoan dena beti dago bizirik.

Albotik begira eta miresten osoarekin bizi izan dut beti bertsolaritza, eta, horregatik, ez naiz ausartzen nik egiten dudana horrekin konparatzera.

Txikitatik ordu asko pasa izan ditut bertsoak entzun, aztertu eta barrutik errepikatzen. Behin eta berriro miresten.

Bertso batzuk barrea eragin didate eta beste hainbatek negarra. Bertso asko ez ditut ulertu eta gutxi batzuk biziaren beste alderdi bat erakutsi didate. Batzuk barruak hustu dizkirate eta beste batzuk tximeletak sentiarazi tripetan.

Bertsoak bizia sor dezake bertsoa bizirik dagoelako eta nik ere bera bizi dut.

Bertsoak efimerotasunaren eta eternitatearen arteko lehia eteten du, elkarrekin dantzan jartzen ditu. Behin entzundako hitzak gure barrenean betirako gorde ditzakegun hazi bihurtzeko.

Nahi baino gehiagotan entzun izan zaitut gure artean ez daudenei abesten, eta hona hemen nire galdera, Mikel: Nolakoa da edo zer sentitzen da gaur egun memorian bakarrik bizirik daudenei bertsoak botatzerakoan?

Koplak

Mugerren hartuko dugu Korrikaren lekukoa, azken kilometroetan

Badoa Euskal Herria zeharkatuz Korrika 2024, AEK-k antolatzen duen ekimen maitatua. Herrialdeetako elkarrekin beraien lurraldeetan egin dituzte kilometroak eta igandean egingo dugu Euskal Herriko Bertsozale Elkartekoa: martxoaren 24an, 10:39an, Mugerren (2761. kilometroa). Zatozte gurekin batera korrika egitera!

Poto-Finixa



Pello Mari Otaño bertsolariari buruzko filma egiteko laguntza deialdia egin dute

Ombuaren Itzala filma egiten ari da Patxi Bisquert zinegilea, Pello Mari Otaño zizurkildar bertsolariari buruzkoa. Proiektua egin ahal izateko auzolan deialdia egin dute eta *crowdfunding* kanpaina abiatu: guztira 40.000 euro bildu behar dira. Ekarpena egiteko bideak Ombuaren Itzala filmearen webgunean daude: www.pellomariaotanoauzonalas.com



PUBLIZITATEA